

Proiektuaren deskribapena

GIKOGYM
GINNASIO EKOLOGICO SOLIDARIOA

Gure egitasmoa, Gasteizen, gimnasio ekologiko-solidario moduko bat martxan jartzea helburutzat dauka; hau da, kutsadura mailak murrizten laguntzen duen eta helburu solidarioen aldeko kirolen establezimendu bat zabaltzean oinarritzen da, **GikoGym** deiturikoa (Ekologiko+Gym).



Idea hau burutzeko, gure lokalean kirol-makina bereziak erabiliko dira, gimnasioaren bezeroek egindako ariketa fisikoaren bidez energia (Watt-ak) sortzeko gai izango direlako. Bezkideek sortutako energia hori, gimnasioan bertan erabiliko litzateke, lehen esan bezala, gimnasio hau ekologikoa delako, eta honen bidez kutsadura mailak murrizten laguntzen ari garelako.

Bestalde, gure helburu nagusietako bat herrialde azpigaratuak laguntzean datza. Horretarako, bazkideek hilero ordaintzen duten kuotaren %20a **Medicmundi**-ri ematea erabaki dugu.

Honela, gimnasio honekin denek irabaziko dugu: gure bezeroek jarduera fisikoa egingo dute, denon artean gutxiago kutsatuko dugu, eta laguntza humanitario baten alde egongo ginateke.